



Pausoz pauso,  
plazerez,  
**FEMINISMOZ**  
**eta tinkotasunez**



ELKARREKIN ERALDATU



PROPOSAMEN FEMINISTAK



KONTSUMISMOARI EZ

KONGRESUA

**HAMAIKA**  
**BEGIRADA**

2017ko URRIA



## 2017ko Urria

Antolaketa: **SETEM Hego Haizea.**

Lan hau Creative Commons lizentziapean dago.



**CC BY-NC-SA** (Aitortu-EzKomertziala-PartekatuBerdin)

Lizentzia honek beste batzuei bide ematen die haren obran oinarri hartuz nahasi, egokitu eta eraikitzeko, helburu ez-komertzialetarako, betiere egiletza aitortuta eta sortzen diren lan berriak baldintza bereko lizentzia baten pean jarrita.



Antolatzaileek diote hau dela **kon-gresu** bat, haren esanahiari adiera berria eman nahi izan diotelako, eta kontatu digute hitza kongredi aditzetik datorrela, eta **elkarrekin joan, pausoak eman esan nahi duela**. Eta horixe da hemen, Gasteizen, hainbat jatorritako eta askotariko pertsona-talde bat bildu gaituena, batzuk urrutitik etorri garelako oso, ozeanoz harainditik, kongresulagun batek esan duenez. **Guatemala, Chiapas (Mexiko), Kolonbia, Ekuador, El Salvador, Galizia, Andaluzia, Madril, Katalunia eta Euskaditik** etorritako emakumeak eta gizonak gara.

Bi egun hauetan, Goiuri jauregiko areto hau **elkarrekin begiratu eta ibili nahi dugun hainbat pertsonaren arteko topagune bat bihurtu da**, baina amets egiteko gune bat ere bai. Eta ez bakarrik geure buruetatik abiatuta, baita ere geure gorputzetatik, geure emozioetatik. Entzuteko eta senti-pentsatzeko gune bat, non nerbioek, emozioek eta aniztasunak ere tokia izan duten.

Elkarrekin eraikitze bat –eta ez paraleloan–, boterea partekatu nahi izate horrek gidaturik, gaiak geure bizipenekin lotuz, maila pertsonalaren eta kolektiboaren artean nabigatuz, baina betiere tokia utziz azaleratu denari begiratzeko.

Hainbeste lagun hemen bildu gaituena **interes komun bat izan da, kontsumo arduratsuko eta ekonomia sozial eta solidarioko proposamen feministak sortzekoa**.






Inaugurazio moduan eta taldean, kongresulagun batzuek geure jakintzak eta esperientziak partekatu ditugu, eta elkarrekin gogoeta egiteko aukera izan dugu bizi garen testuinguruari buruz; hain zuzen ere, testuinguru global horretan sistema-krisia dago, finantza-krisia,

“**HETEROPATRIARKATU KAPITALISTA KAPITAL- ETA BOTERE-METAKETAZ BAINO EZ DA ARDURATZEN**”

balio-krisia, zainketa-krisia, baina –kongresulagunetako batek aipatu duenez– existentzia-krisia ere bai, maien mundu-ikuskeraren arabera, unibertsoetik deskonektaturiko giza-kiak galdurik baikaude.

Krisi horiek gero eta pertsona gehiago estutasunean eta miserian uzten ari dira, eta, horrela, **agerian uzten dute heteropatriarkatu kapitalista kapital- eta botere-metaketaz baino ez dela arduratzen**, eta baliabide eta ondasunen akaparamenduaz, **menderakuntza-harreman sakoneko sistema bat sortuta**, gure gorputz eta bizitzetan txertatu nahi dutena. Ildo horretan, gutako batzuek nabarmendu dugu, gainera, herrien erabakimen askea errespetatu behar dela, eta herri indigenen kontra dauden arrazakeria eta bazterkeria kuestionatu, kapitalismoak





eta globalizazioak antzinako ezagutzak eta praktikak erauztea eta haietaz jabetzea galaraztearen garrantzia azpimarratzeaz gain.

Eta hori hala dela onartuta, gutako batzuek geure gogoetak ekarri ditugu, **ikuspegi feminista barne hartzen duten ekonomia sozial eta solidarioak eraikitze-ko beharraz**, sistema honek sortzen duen egiturazko indarkeria horren guztiaren alternatiba bat aurkitzeko bizi-bilaketa gisa. Oreak berreskuratzea-edo, herri indigenen begiradatik, helburutzat lurraren jabe izatea ez daukan oreka bat, lurraren zati izatea baizik.

**“IKUSPEGI FEMINISTA BARNE HARTZEN DUTEN EKONOMIA SOZIAL ETA SOLIDARIOAK ERAIKITZEKO BEHARRA DAGO”**

Eta, esperientzia eta errealitate bakoitza desberdina den arren, ikusi dugu, orobat, gu kide garen antolakundeetako askok antzeko ezaugarriak dituztela, esate baterako: **horizontaltasuna lortzen saiatzea; ekitatea printzipiotzat edukitzea; zainketa ardaztat hartzea; ekoizpen jasangarria; toki-mailatik lan egitea; autonomia bilatzea; eta sareak eratzea.**






Halaber, askok hitz egin dugu ekonomia sozial eta solidarioak tokiko testuinguru bakoitzean topatzen dituen erronkei buruz. Esate baterako, hazkunde esponentziala erronka gisa horizontaltasunaren aldetik; ekonomia soziala zer den eta zer ez den erabakitzeko elkarrizketaren aldetik; edo hazkunde hori, arlo feministari dagokionez, inklusiboa izaten ari den ala ez argitzeko elkarrizketaren aldetik. Erronka dakarte, halaber, erakunde eta politika publikoekiko harremanek, autonomiaren aldetik. Erronka da, orobat, migratzaileek oraindik ere neurri handiagoan beren antolakundeen hartzaile izaten jarraitzen dutela, protagonista baino. Edo beste erronka batzuk, hala nola akademiatik edo diskurtsoetatik arriskua dugula praktikatik urruti dauden prozesu batzuk sortzeko edo, are gehiago, halakoak benetan gertatzen ari diren tokiak alde batera uzteko. Dena dela, horri dagokionez, kongresuko lagun batzuek aipatu dugu, nagusitutako diskurtsoaren aurrean, teoria sortzea eta idaztea ere garrantzitsua dela, egiten duguna jasota uztea, eta hedabideetan presentzia izatea.

Denok jotzen dugu garrantzitsutzat **feminismoa zeharkakoa izan dadin ekonomia sozial eta solidarioan, bere analisi eta gogoetak ekar ditzala**, esaterako, lana zer den haren dimentsio guztietan sakonago aztertu ahal izateko, emakumeok dugun

karga ikusgai bihurtu ahal izateko, eta sexuaren arabera lan-banaketa eta lan-esplotazioa nahiz denboren antolaketa zalantzan jarri ahal izateko.



Kongresulagun batek esan du ekonomia soziala, edo feminista izan, edo ez dela solidarioa izango. Eta hori praktikan egiaztatzen ari gara, eta gero eta sinetsiago gaude hala dela.

Askok aipatu dugu, baita ere, diskurtsoek ez gaituztela immunizatzen gu geu ideia edo egiteko modu heteropatriarkal batzuek zeharkatuta egotetik. Esaterako, **gure antolakundeetan oraindik ere badira harreman hierarkikoak**, edo gure lan-banaketek **genero-estereotipoak erreproduzitzen jarraitzen dute**. Hor dago ordezkartzaren gaia ere, kasu batzuetan maskulinoagoa izaten jarraitzen baitu, bai eta parte hartzeko eta erabakiak hartzeko egituren nolakotasuna ere. Uste dugu oso garrantzitsua dela erne egotea eta geure buruari galderak egitea, gure begirada ez izateko toki bakarrera begiratu eta bestea ikusten ez duten zaldi horiena bezalakoa.



### Honelako galderak:

- › Nola izan geure gorputzen subjektuak sistema honen aurrean?
- › Nola gainditu antolakunde-garapena, dagoena hobetzeaz harago ez baitoa, gizarte-eraldaketan eragin gabe, baina?
- › Nola lortu gure antolakundeek lehen ezinezkotzat jotzen genituen zenbait gauzarekin amets egitea edo haietan engaiatzea?
- › Nola hautsi soldatekiko mendekotasuna, gure bizitzen ardatz gisa, eta pentsatu nola bete gure beharrianak beste era batzuetan?
- › Nola jarri erdigunean elkarrenganako afektua, konfiantza eta laguntza, horrek gure autoesplotazioa ekarri gabe?
- › Nola kontuan hartu batzuen eta besteen erritmo pertsonalak, antolakuntza-aldaketak euts diezaion?
- › Nola uztartu burua, bihotza eta eskuak gure antolakundeetan?



Gutako batzuek hori guztia agerian jartzeko dagoeneko egiten ari denarekin izandako esperientziak partekatu ditugu, ekonomia feministako taldeekin, esaterako, edo antolakundeetako bileretan edo gatazken aurreko bitartekaritza- edo bideratze-taldeetan egiten diren diagnostikoko behaketekin. Prozesu horiek antolakundeetan zentratzen dira, pertsonak zein haiek bizitzarekin duten konpromisoa eraldatzeko, baina sinesmenetan, arau eta politiketan, gizarte-mailako joko-arauetan aldaketak sortzeko ere bai.

Kongresuko lagun batek aditzera eman du, horren aurrean, haren antolakundeetan begirada atzerantz itzuli zutela, arbasoak nola moldatzen ziren ikusteko; esaterako, banketxerik gabe, agrokimikorik gabe, denaren kontsumoa gabe bizirik irauteko. Haren komunitatean pixkanaka ahaztu ziren kontu xume batzuk. Eta geure buruari galdetu bizitzatik zer nahi dugun, zeri ematen ari garen garrantzia eta norantz goazen, **eta ateratzen dugun ondorioa da Utz' K'aslemal delakoa nahi dugula, bizitza oso-betea, eta ez bakarrik pertsonena, gure inguruko guztiarena baizik.**

Beste une batean, gutako batzuek bidezko merkataritzaren, elikadura-burujabetza- ren eta sexu- eta genero-aniztasunen inguruko esperientziak ere partekatu ditugu, **hiru buruko piztia den eredu nagusitu honen aurrean: neoliberala, etnozentrikoa eta heteronormatiboa.**



Oso esperientzia desberdinak azaldu ziren; esaterako, kongresulagun batek adierazi zigun zein zaila den bere komunitatean lesbiana feminista indigena izatea, baina nola izan den egoera bereko beste emakume batzuekin topo egitea laguntza eta indar gehien eman diona. Edo kongresuko beste lagun batek Galiziako landa-eremuan sexu-aniztasuna lantzen duen jaialdi agrocuir batean izandako esperientzia kontatu digu. Edo beste bi kongresulagunen esperientzia; hain zuzen, azaldu digute haien antolakundeetan funtsezkotzat jotzen dutela feminismoak dena zeharkatzea eta hura sustatzeko jardura erakargarriak egiten dituztela beren komunitateetan, besteak beste, zineforumak.



Askotan hitz egin dugu geure antolakundeetan, ikuspegi hori gehitzeko garaian, aurkitzen ditugun erresistentzia eta oztopoei buruz. Eta geure buruari galdetu diogu ea **nola ez ikusezin bihurtu emakumeak –subjektu politiko gisa–** eta aldi berean beste aniztasun batzuk ikusgai jarri. Ildo horretan, kongresulagun batek kontatu du nola **erlijioak oraindik ere pisu handia duen haien komunitateetan** edo nola jarraitzen duten emakumeak edo trans pertsonak umorearen bidez irrigarri uzten.





Beste kongresulagun batek azaldu duenez, haren antolakundean zailtasunetako bat da ez dagoela elkarriketa politiko arin bat, eta herrietako beste kultura- edo kirol-elkarte batzuekiko harremanak oso konplikatuak direla. Gutako batzuek, halaber, **akademiatik datozen erresistentziak aipatu ditugu, askotan gure diskurtsoak edo praktikak irrigarritzat jotzen dituzte eta.**

Baina geure prozesuetan feminismoa gehitzen lagundu diguten gauzak ere ikusi ahal izan ditugu, eta gutako batzuek esan dugu funtsezkoa izan dela **errespetua, geure burua ezagutzen jakitea, benetan demokratikoak diren espazioak erai- kitzea, eta aliantzak sortzea.** Kongresulagun baten arabera, haren esperientzian funtsezkoa izan da nondik gatozen jakitea, eta borroka interseksionalak izatea, ez bakarrik LGBTIQ eskubideak aldarrikatzea, baso autoktonoa ere defendatzea, ba- so-politikak, abeltzaintzako baldintza duinak.


Beste une batean, jakin dugu kongresulagun batzuk –zeinek bere ibilbidea eta es- perientzia dituela– antolakuntza-prozesu ez-heteropatriarkalak eraikitzen ahale- gintzen garela.

Kongresuko lagunetako batek aditzera eman digu haiek antolakundean aldaketak egitera bultzatu dituen gatazka izan dela, eta **patriarkatua txikitatik barneratua dugula ohartzera,** eta gatazkaren aurrean beldurra sentitzen dugula, **ikasitako di- namikak dauzkagulako, alegia, konfrontazioa, ihesa edo suntsiketa.** Baina ga-





tazkak aldatzeko aukera ere irekitzen digu, gauzak beste era batera egiten saiatzeko aukera. Ez diogu toxikorik botatzen lurrari, baina harremanei ere ez, azaldu du gure arteko beste batek.



Kongresulagun batek pentsatu du, antolakundeak despatriarkalizatu ezean, ekonomia solidarioa tranpa bihurtzen dela emakumeentzat; izan ere, antolakundeak oso asanblearioak izan arren, heteropatriarkaltasunean eta belaunaldiz belaunaldikoan oinarritzen badira, desberdintasuna betikitzen jarraitzen dute. Horregatik, funtsezkoa da –eta horretan denok bat gatoz– bizitzaren zerbitzura dauden ekonomia batzuk eraikitzea, eta emakumeentzat, gizonentzat... guztientzat habitagarriak diren antolakunde batzuk.

Askok onartzen dugu gure sentsibilizazio-lantegietan edo -jardueretan sustatzen ditugun alderdi batzuk erreproduzitzen ditugula zenbaitetan eta garrantzitsua dela geure burua ikuspegi pertsonaletik berraztertzea, baina, era berean, hau prozesu luze bat dela, non **esperimentazioa eta beste feminista batzuk lagun izatea oso garrantzitsua den.**



Batzuk bat etorri gara funtzionatu egiten duela, antolakundeen barruko tirabiren aurrean, laguntza eskatzeak, kanpotiko bideratze-lanen bat edo, areago, laguntza psikologikoa.

Gure arteko batzuek hainbat estrategia saiatu ditugu prozesu ez-heteropatriarkalak eraikitzeko, hala nola geure antolakundeetan lan-eskubideak kuestionatu, eta ezkongabetasun-baimena asmatzea, ordutegietan malgutasuna edukitzea, eszedentziak eskatzeko aukera egotea, bazkideen eta langileen artean soldata-desberdintasunik ez ezartzea –ezta titulazioagatik ere–, antolakundeen tamaina txikiari eustea, plazera helburu komuntzat edukitzea, edo zainketen gaia politizatzea. Kongresulagun batek gauza bitxi bat kontatu du, haren antolakundeetan badituztela eskubide batzuk, gero erabiltzen ausartzen ez direnak eta, hori dela eta, eskubideak erabiltzeko eskubide hori berraztertu behar izan dutela.

Beste batzuk bat etorri gara **gai-arloen arabera lan egitearen garrantziaren inguruan, botereak non dauden aztertzeko**, berariazko genero-espazioak instituzionalizatzeko, geure antolakunde-kulturak, geure balioak/oinarriak eta geure militantzia-ereduak (militantzia heroikokoak, batzuetan) berraztertzeko.

Iritzi berekoak izan gara batzuk, prozesu horiek topatzen dituzten zailtasunek **baliabide-faltarekin eta administrazio publikoekiko mendekotasunarekin**






zerikusia dutela planteatzean. Eta, antolakundeen barnean, atzeman dugun erresistentzia bat izan da jende askok kuestionatzen duela ea zergatik heltzen zaion ikuspegi feministari, eta ez beste bati. Kongresulagun batek kontatu digu horrek ekarri duela gizon batzuk bidean geratzea eta haren antolakundea zenbat eta feministagoa izan, hainbat eta feminizatuago dagoela. Horrek kezka sortu du gure arteko batzuegan.

Era berean, ikusi dugu, gure antolakundeetan egitura argirik ez dagoenean, **bote-rea isilean sartzen dela** eta askotan ez garela guk uste bezain horizontalak, badaudela rolak, ezkutuko hierarkiak, maila-kontuak. Horrek desgastatu egiten gaitu. Gure iritziz, erronka nagusia da egiturek pertsonak zain ditzaten. Gustatuko litzai- guke umorea eta gorputza neurri handiagoan egotea tresna politiko feminista gisa.

Beste une batean, batzuek ekonomia sozial eta solidarioan estalita ez dauden espazioen arloko esperientzia partekatu dugu, begirada feminista gehitzeko, eta hutsuneak atzeman ditugu. Hutsuneak, kuestionamendu batzuk herren geratzen direlako, eta ohartu gara, hau erreala izatea nahi badugu, **azterketa feministan buru-belarri sartu behar dugula**. Ildo horretan, kongresulagun batzuek, esate- rako, agerian utzi nahi izan dituzte banku konbentzionalen desperekotasun ikusezi- nak, eta hori banka etikora eraman, indarkeria prebenitzeko neurriak hartze aldera.






Edo **kontsumo kapitalistaren eta indarkeria matxisten arteko loturan sakondu**. Guretzat garrantzitsua izan da jakitea ideia eta abentura horien ondorioz galdu egin gaitzkeela askotan, baina aurkitu ere bai, eta esperimetzeko aukeraren askatasuna sentitu, baita apur bat zoratu ere. Mugak ditugulako argitasun horrekin ibili, eta okertu behar badugu, okertu egingo gara, bidea berriz aurkitzen lagunduko digun norbait egongo da eta, betiere.

Intentsitate handiko bi egun izan dira hauek, eta haietan adierazteko aukera izan dugu, esateko edo ez esateko aukera, toki desberdin batetik (deserosoa une jakin batzuetan) entzuteko eta ikasteko aukera, emozioak eta gorputza ere bertan izan direla. Eta ohartu gara, esaterako, posible dela poza sentitzea eta aldi berean negargura izatea, bizia arriskuan ez jartzeko, beren desirak isildu behar dituztenen oinazearen aurrean.


Solasaldi hauek indarrez eta gogobetetasunez bete gaituzte, loturak ezarri eta elkarrekin lan egiteko gogoz, **eraikitzen eta desikasten** jarraitzeko gogoz, **geure burua asmatzen eta berrasmatzen** jarraitzeko gogoz, geure erosotasun-tokietatik irten, eta ibilbide berriak proposatzeko, geure grinak gidari hartuta. Satorraren estrategia aplikatzea: lehen iritsi gabeko espazioetara sartzea.





Ohartu gara aurrean erronka asko ditugula, baina, baita ere, badugula denbora haietan lan egiten jarraitzeko. Izan ere, badugu argi, baldin **oinarria feminista ez bada, hondamena, heriotza eta suntsipena baino ez direla egongo.**

Denok Atlantikoaren alde bateko eta besteko begiradak uztartzen jarraituko genukeen gustura, topaketa honek guztiok **itxaropenarekin** konektatu gaituelako, baina ez dena ongi irten eta gatazkarik gertatuko ez den itxaropenarekin, **egiten ditugun gauzek zentzua duten itxaropenarekin baizik, planetako bazter guztietan bizitzak bizitzeko poza merezi izan dezan laguntzeko.**





# Eskerrak

- › Yolanda Jubeto
- › Daniela Osorio
- › Angelina Aspuac
- › Natalia Navarro
- › Fernando Altamira
- › Rosalinda Santiz
- › K'inal Antsetik  
(Chiapas, México)
- › Laura Sánchez
- › César Quintero
- › Corporación Penca  
de Sábila  
(Medellín, Colombia)
- › Adrián Gallero
- › Colectivo Agrocuir de  
Ulloa (Galicia)
- › Movimiento Sin Tierra  
(Brasil)
- › María Viadero
- › Mugarik Gabe  
(Euskadi)
- › Alicia Rius
- › Red de Economía  
Feminista (Madrid)
- › Mujeres Transforman-  
do (El Salvador)
- › Zalóa Pérez
- › REAS Euskadi
- › Tania R. Manglano
- › Patricia Esteban
- › Fundación Entredós  
(Madrid)
- › Laura Latorre
- › Medicus Mundi Araba
- › Maquita (Ecuador)
- › Cristina Esteban
- › Conchi Piñeiro
- › LaBox
- › Erreka
- › EPS
- › Montehermoso  
Kulturunea
- › Peñascal Kooperatiba
- › Altekio
- › Pandora Miribilia
- › Marina
- › M.<sup>a</sup> Jesús
- › Leire
- › Iñigo
- › Aracelly
- › Silvia
- › Ane
- › Montse
- › Dinora
- › Yolanda
- › M.<sup>a</sup> Luisa
- › Nerea
- › Eva
- › Itsaso
- › Sonia
- › Iñigo
- › Eukene
- › Lidia
- › Ana
- › Susana
- › Claudia
- › Ander
- › Marian
- › Dahiana
- › José Luis
- › Elisa
- › Laura
- › Cristina
- › Ane
- › Esti
- › María
- › Itxaso
- › Amaia
- › Cristina
- › M.<sup>a</sup> Ángeles
- › Irati
- › Toñi
- › Arantza
- › Miriam
- › David
- › Mikel
- › Amaia
- › Patricia
- › Idoia
- › Andrea
- › Rakel
- › Mamen
- › Arantza
- › Urko
- › Leire
- › Rosa
- › Maialen
- › Janire
- › María
- › Vero
- › Ana
- › Marta
- › Ania
- › Karmele
- › Frinée
- › Laura
- › Marta
- › Esti
- › Zuri
- › Iratxe
- › Alberto
- › Laura
- › Ainhoa
- › Nora
- › Lorena
- › Jon
- › Edurne
- › Marta
- › Laura
- › ...

Setem



[www.setem.org/euskadi](http://www.setem.org/euskadi)